



NOLA ETA NOIZ?

Hiru alditan banatutako prozesua proposatzen dugu:

1. **aldia** (Biltzar aurrekoa), **elizbarrutian** egingo dena. “**Laikotza eraginkorra**” agiria taldeka lantzea da proposamena. Aldi hau elizbarrutiko topaketan amaituko da. Elizbarrutien ekarpenekin, Instrumentum Laboris deitutakoa eratuko da.

2. **aldia** (Laikoen biltzarra); Madrilen ospatuko da 2020.eko otsailaren 14tik 16ra. Oinarrizko lau ibilbide landuko dira taldeka: **Lehen iragarpena; akon-painamendua; prestaketa-prozesuak** eta **agerpena bizitza publikoan**. Biltzarrak zeharkako funtsezko bi lerro izango ditu: **Sinodo-sena** eta **bereizketa**.

3. **aldia** (Biltzar ostekoa): elizbarrutietan laikotza bultzatu eta sustatuko duten proposamen eta jardunbideak zehaztuko dira.

Biltzarrari lotutako ibilbide hau garatzeko funtsezkoa da **elizbarruti bakoitzean** laikotza elkartu eta ez elkartuaren **ahalik eta partaidetza zabalena bermatzea** eta hori lortzeko ezinbestekoa izango da ilusioz beteriko ahalegina haren berri emateko eta aldi guztietan parte hartzea bultzatzeko.

Horretarako, **gure laguntasuna izan-go duzue**, azalpenak eman eta zalantzak argitzeko, ideiak emateko eta, behar izanez gero, elizbarrutietan lagun egiteko, sustatu, elkarrizketan jardun, konpartitu eta beharrezko guztia argitzeko.

CONGRESO DE LAICOS 2020
COMISIÓN DE CONTENIDOS

Conferencia Episcopal Española
Comisión Episcopal de Apostolado Seglar

Bitartekoak:

Luis Manuel Romero
Isaac Martín

913439717

contenidos@pueblodediosensalida.com
info@pueblodediosensalida.com

www.pueblodediosensalida.com



Sareen bidez jarraitu
Laicos2020



Madrid, 14-16 de febrero de 2020

Laikoen Biltzarra
prestatzeko prozesua

Mundura bizia eramateko Berri Onaren iragarpenarako zeinu eta tresna izan.





ZERGATIK?

Espainiako Gotzainen Batzarrak “Eliza misioan gure herriaren zerbitzura” izenburua duen Pastoral Egitasmoa garatzen dihardu 2016 eta 2020 bitartean, Frantzisko Aita Santuak Elizari egin dion bihurtze misiolaria (EG 30) oinarritzat hartuta.

Pastoral Egitasmoaren amaieran, Biltzarra egitea aurreikusten da eta Jainkoaren Herri osoarentzat –gotzain, apaiz, kotsakratu eta laiko- izango da deialdia.

2018ko apirileko Osoko Bilkuran, aipatutako Biltzar hori laikotzaren gaian oinarritzea erabaki zuten gotzainek eta CEEko Laikoen Apostoluzarako Gotzain batzordearen esku utzi zuten antolakuntza.

ZERTARAKO?

Horregatik, Biltzarraren helburu nagusia **Jainkoaren Herriko laikotzaren pastoral eta misiolari bihurtzea bultzatzea** da, itxaropen eta poztasunaren **Berri Onaren iragarpen-erako zeinu eta tresna bezala, gizon eta emakumeei osotasun handiagoko bizitzarako bidean lagun egiteko.**

Biltzarrak bera, aurretiko prestaketa eta osteko garapena elizbarrutietan, honetarako izango dira baliagarri:

1. Laikotzak duen misiorako bateo-bokazioak **jabetu**.
2. “**Karitate politikoa**” sustatu.
3. Gure gizarteak jartzen dizkigun eronkak direla-eta, **itxaropenezko begirada** helarazi, bereizketatik.
4. Jainkoaren Herria izanik, **elkartasuna sustatu**.
5. **Laikotzaren egoera agertzera eman**.



FUNTSEZKO ARDATZAK

Hona hemen prozesuan aintzat hartuko ditugun funtsezko ardatzak:

- **Laikoei entzun**
- Jainkoaren Herri bezala, **sinodo-sena** eta **ardurakidetasuna** bizi eta gauzatu
- Elizak helarazten eta bizitzen duen Hitzaren argitan **bereizketa** egin
- Alde batera uztearen kulturaren aurrean, **bat egitearen kultura sustatu**
- **Abian** eta pozik den **laikotza** bultzatu

Hiru ohar bereizgarri izango ditu prozesuak:

- **Sinodo-sena:** bidelagun izan
- Elizaren misioaren **bereizketa**
- **Espiritualtasuna** (EG 280).